

Gaztetxeak martxan jarri dituzte, Zizurkilen eta Tolosan

Aiztondoko Gazte Asanbladak Kaxilda gaztetxea okupatu du, berriki, eta Tolosako Gazte Asanbladak Ezpala hartu du, bigarrenaz; bietan, zenbait gazte identifikatu ditu Ertzaintzak // 4

«Kulturalki eduki oso negatiboak esleitzen dizkiogu menopausiari, arazo bat balitz bezala»

CLARA WOLFRAM
SEXOLOGOA

Menopausiari eta autoezagutzari buruzko ikastaroa eskainiko du Tolosako jabetze eskolan // 2

Elkarren aurka jokatu dute, Iñaki Artolak eta Erik Jakak, ostiralean

Buruz buruko pilota txapelketako final laurdenetako partida hartuko du, Tolosako Beotibarrek; irabazleak Joseba Ezkurdia izango du aurkari, finalerdietan // 6



«Hilabeteak edo urteak igaro ditzaket epaiketaren zain»

MAITE ARANALDE EUSKAL PRESO OHIA

Ibartarrak ia 17 urte pasatu ditu sorterritik kanpo, eta joan den martxoaren 11n geratu zen aske, Soto del Real espetxetik irten eta gero; gizarteak izan dituen aldaketetara, eta ziega barruan ez egotera ohitzen ari dela dio // 3

Landareak
Lorezaintza
Baratzea
eta gehiago



IREKIERA
APIRILEAN

www.adunagarden.com



aduna
garden

Sendabelarretako ikastaroa egingo dute, asteartetan, Anoetan

ANOETA // Maiatzaren 7tik ekainaren 11ra bitarte, asteartetan izango dira sendabelarren saioak, Sara Letamendiaren eskutik. Maiatzak 7, 14, 21, 28, eta ekainak 4 eta 11 hartuko ditu ikastaroak, 18:30etik 20:30era. Maiatzaren 2ra bitarte eman daiteke izena, udaletxean, liburutegian edo infokultura@anoeta.eus helbidean. Lehentasuna izango dute Anoetan errolatutakoek, eta 60 euro ordaindu beharko da izena ematerakoan.

Anoetako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

ANOETA // Lehiaketa bidez aukeratu dute Anoetako festetako kartela. Festetako egitarauaren azala egiteko erabiliko dute eta, hortaz, karratua beharko du izan (29,7 cm x 29,7 cm). *Anoetako Jaiak 2019* testuak agertu beharko du, eta erabili beharreko teknika librea da. Lanak, hilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean edo liburutegian. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

Anoetako udaleku irekietan izena emateko epea zabalik

ANOETA // HH 1. mailatik LH 6. mailara bitartekoentzat izango dira Anoetako udaleku irekiak, ekainaren 24tik uztailaren 19ra. Apirilaren 30era arte, udaletxean, ikastolan edo liburutegian eman daiteke izena eta, epez kanpo apuntatzen dena, itxaron zerrendan geldituko da; ez du plaza ziurtatuta izango. Jarduerak plazan, ikastolan edota kiroldegian izango dira, eta irteerak ere egingo dituzte.



ATARIA

«Menopausian bizitzaren momentu indartsu batean gaude»

CLARA WOLFRAM PEREZ
SEXOLOGOA

Tolosako jabetze eskolaren barruan 'Menopausia eta autoezagutza' tailerra eskainiko du, Tolosako kultur etxean; bost saio izango dira, eta izen ematea zabalik dago.

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Jabetze eskolako ikastaroen artean, *Menopausia eta autoezagutza* ikastaroa hasiko da maiatzetan. Sexualitatean aditua den, eta berdintasun masterra egina duen Clara Wolframek emango du. Maiatzaren 6, 13, 20, 27an, eta ekainaren 3an, astelehenetan, izango da ikastaroa. Izena 943 67

03 83 telefono zenbakira deituta, edo berdintasuna@tolosa.eus helbidera idatzita eman daiteke. **'Menopausia eta autoezagutza' tailerra emango duzu Tolosan.**

Tailer parte hartzaile bat izango da. Ni neu menopausian dagoen emakume bat naiz, eta uste dut menopausiara hurbiltzen ari diren edo jada menopausian hasiak diren emakumeek parte hartuko dutela. Informazioa jasotzeko tailer bat izango da. Alde batetik, menopausiak nola eragin dezakeen hainbat mailatan; fisikoki, aldaketa hormonalak,... Aldaketa horiekin zer egiten dugun ikusiko dugu. Zer estrategia garatu ditugun, eta nola bizitzen ditugun denon artean ikusteko aukera izango da. Informazioaz gain, konpartitza izango da gako.

Nola definituko zenuke menopausia?

Menopausia guri pasatutako hitz bat da. Menstruazioa gelditzen

den momentua da. Hala ere, beste batzuek, beste hitz bat erabiltzen dute: *climaterio*. Agian hobeto adierazten du gure gorputzean giro aldaketa bat bizitzen dugula. Nerabezaroan ere beste giro aldaketa bat bizitzen dugu, hormonak aldatzen zaizkigunean. Orain ere, beste aldaketa bat gertatzen da, eta egokitzen gara. Kulturalki eduki oso negatiboak esleitzen dizkiogu menopausiari, arazo bat balitz bezala.

Eta ez da arazo bat, ezta?

Zahartzearen ikuspegitik asko begiratzen da. Emakumearen zahartzea ez da baloratzen den zerbait. Badirudi, balorea galtzen dugula. Diskurtso hori desgiteko izango da ikastaroa. Guri menopausiak nola eragiten digun eta, nola, guk, aukera ezberdin bat bezala bizi dezakegun menopausia.

Esango zenuke menopausia ezkutuan pasatzen dela?

Bai. Nik uste dut konfiantzazko harremanetan konpartitzen dugun zerbait dela; nola bizitzen dugun, zein aldaketa bizitzen ditugun,... Baina ez da, oraindik, hilekoa ospatzen ahal den bezala ospatzen, eta ospatzeko garaia ere izan daiteke. Beste fase batera pasatzen gara. Ez dugu nahikoa hitz egiten honi buruz, eta asko eragiten du batzuetan: alde fisikoan, gure loan, indar sentazioan,...

Zer gorde eta zer aldatu nahi dugun pentsatzeko une ona dela diozu.

Emakume askori gertatu zaie, urte asko pasatu dituztela beste-ei ematen, eta, une honetan, gorputzak berak eskatzen du norbere burua lehenestea. Bizitzaren bigarren partean, esaterako, batzuei libidoa jaisten zaie, eta horrek zein sexualitate mota bizitu nahi dudan galderari erantzutea dakar. Nola egokituko naiz? Zein aberastasun ekar diezadake eta pa honek? Aukera bat da. Helduagoak gara, eta gehiago dakiugu geure buruaz; gehiago bizitu dugu. Une honetan zer aldatuko nuke nire bizitzan?

Autoezagutzak ere beregarritzia du.

Autoezagutza hori bizitza osoan zehar gertatzen den zerbait da, eta geure burua ezagutzen joaten gara, tailer bat egin edo ez. Baina ariketa konkretu batzuk egingo ditugu, geure buruari denbora eskaintzeko, eta geure burua hobeto ezagutzeko; gogoak, beldurrak, ametsak...

Aberasgarria da esperientziak trukatzeko?

Denok gabiltza aldaketa hormonalak sortzen dizkiguten egoera bat edo bestea kudeatzeko informazio bila. Eta, askotan, esperientzia izaten da informaziorik interesgarriena. Zer egin duzu, adibidez, loa aztoratu bazaizu? Zein estrategia garatu duzu? Hori denon artean egingo dugu, eta hortik ateratzen da aberastasunik handiena.

Zein sintoma ditu?

Sintomak? Emakume askok ez dute menopausia fasearen sintomatologiarik. Sintoma erabiltzean askotan gaixotasunarekin lotzen dugu. Ez da gaixotasun bat, hau aldaketa bat da. Oso indibiduala dena.

Gehiago hitz egin beharko litzateke menopausiaz?

Bai. Oro har, eguneroko bizitzan gai normal bat bezala hartu beharko litzateke. Arintasunez eta pozez hitz egin beharko genuke. Hala ere, uste dut, gaur egun, askoz ere askeago hitz egiten dela. Baina badu karga negatibo bat, sozialki jarria, eta menopausian bizitzaren momentu indartsu batean gaude. Esperientziak lehenetasunak markatzeko gaitasuna ematen dizu, baina emakumeek adina hartzea ez dago baloratua. Baloratuko balitz, garrantzia gehiago eman beharko genieke 50 urtetik gorako emakumei, autoritate gehiago. Baina emakumei autoritatea ematea eta jakintza aitortzea, ez dator bat sistema patriarkalarekin.



Iñigo Terradillos Ibarra

Martxoaren 11n geratu zen aske Maite Aranalde (Ibarra, 1982) Soto del Real espetxetik. Bere burua kokatu behar duela dio, «al-datuta» nabari duen gizartean egokitzeko. Epaikeaz, emakumez eta espetxeaz, dispertsioaz edota minaz aritu da solasean, TOLOSALDEKO ATARIA-rekin.

Nola joan dira lehen asteak?

Ondo. Eromen pixka bat izan da, jende asko gerturatu zaidalako. Oso pozik eta eskertuta nago, maitasun handia jaso dudalako.

Aske geratu zinen eguna nola gogoratzen duzu?

Emozio handikoa izan zen, oso polita. Jakinarazi zidatenean, etxera deitu nuen, eta ordurako etxekoek bazekiten, eta Madrilerako bidean jarrita zeuden. Kartzelako neska guztiak agurtu nituen. Kolektiboko kiderik ez dut izan Madrilén, ezta euskaldunik ere. Agurra emozio handikoa izan zen, han uzten nuenagatik, harreman onak egin ditudalako, eta espetxeko egoera gogorrean jarraitu beharko dutelako.

Sei hilabete egin dituzu Soto del Realen.

Bai. Lehenengoa isolamenduan, eta gainerakoak moduluan.

Orotara ia 17 urte igaro dituzu etxetik kanpo.

Frantzian, lehenbizi, espetxean lau urte eta erdi Espainiara estraditatu ninduten, kalean geratu nintzen, epaileak atxilotze agindua eman zuen, eta alde egin nuen berriro. Hilabete gutxira, Baionan atxilotu ninduten. Han 8 urte eta erdi egin nituen eta, gero, Madrilgo azken etapa hau.

Orain epaikearen zain zaude.

Hilabeteak edo urteak igaro ditzaket epaikearen zain. Epaike-ta gauzatu daiteke, edo azkenean absoluzioa eman. Ziurgabetasun horretan nago, libre geratzea edo urte askorako espetxeratzea gerta baitaiteke. Nahiko baiko-rra naiz, baina ezin da jakin.

Zer da egozten dizutena?

Abenduaren 6ko konstituzioaren aldeko egun batean, gasolin-degi batzuetan lehergailuak jarri izana. Ez dago horren frogarik, ez dago funtsik. Horregatik espero dugu, azkenean epaiketa bertan behera geratzea.

Zer asmo dituzu?

Lehendabizi, kokatzea, nere lekutxo-a egitea. Gauzak asko aldatu dira: gizartea, lagunartea, ni neu... Nire denbora beharko dut. Kartzelan eutsi baldin badiot, kalean ere lortuko dut. Lanean hasteko ere gogo-a dut, eta baita herri mugimenduetan jarraitzea ere.

«Kartzelak suntsitu egiten du, eta emakumea bereziki»

MAITE ARANALDE
EUSKAL PRESO OHIA

Ia 17 urte igaro ditu etxetik kanpo; damurik ez duela dio, baina, kontatu du, mina eta nahia barruan eraman dituen sentimenduak direla.



I.T.

Zertan aldatu zaitu espetxeak?

Zahartu egin naiz, dagoeneko ez ditut hogei urte, beraz, nahitaez aldaketa bat dago. Bakardade handia bizitzen duzu espetxean, eta, azken asteetan, espetxetik atera ondoren, jende askorekin egon naiz. Batzuetan bakardade horren beharra ere sentitzen dut, eta sentimendu horren aurka egin eta gizarteratzeko ahalegina egin beharra daukat. Beldur-rak ere baditut, esaterako, lanerako edo gizartera egokitzeko gai izango ote naizen.

Gizartea zertan aldatu dela ikusi duzu?

Lagunartean familiak eratu ditzutela ikusi dut, logikoa den moduan. Baina, nik ez dut egin, eta orain ikusi beharko dut hori nahi dudanez edo nola nahi dudanez hori egin. Etorkin ugari ikusten ditut kalean, eta deigarri egiten zait, lehen ez nituelako ikusten. Mobilarekin lotuta dagoela jendea ikusten dut, baita ni ere, eta pentsatzen dut, neurri batean, preso ez ote gaituen egiten.

Damurik izan al duzu hautatu duzun bideak ez dizulako beste bizitza bat egiten utzi?

Damua ez. Mina sentitu dut une batzuetan, eta, gogo-a ere, batzuetan besteetan baino handiagoa. Oraindik gaztea naiz eta denbora daukat. Ikusiko dut. Preso dauden gurasoen sufri-mendua azpimarratzen dugu, seme-alabekin egon ezin dutelako. Baina, ama edo aita izan nahi eta ezin dutenak ahazten ditugu. Normalean ama izan nahi dutenak izaten dira. Nik pertsonalki ondo jasan badut ere, ezagutu ditut arrazoi horregatik zama handia duten kideak.

Ez da berdina, eta espetxean bereziki, emakumea edo gizona izatea.

Emakumea kartzelan bi aldiz zapaldua da. Preso politikook bisitak izaten ditugu, baina sozialek ez dituzte izaten. Bisitan joaten direnak ere, normalean, emakumeak dira; ama, bikotekidea. Emakumeek kartzelan, berriz, ez dute ia bisitarik. Beste emakume batekin ere izan ditzakezu harre-

manak, noski. Nik pertsonalki, beti gizonekin izan ditut harremanak, eta kartzelan ireki egin naiz. Eta oso kontentu nago beste emakumeekin maitemindu eta harremanak eduki izanaz.

Azken urteetako martxoaren 8ak desberdinak izan dira.

Nola bizitu dituzu espetxetik?

Emozio handiz. Dena den, faltan bota dut preso-egitea. Euskal Herrian badakit aipatu dela, baina, oraindik lan handia dago arlo honetan. Kartzelak pertsona suntsitzen du. Kartzela zigorra da, zapalkuntza, mendekua. Eta emakumeentzat bereziki. Gizarteak nahi duen emakumearen eredutik aldentzen da, preso dagoen emakumea. Emakumeak, ziurrenik, erruduntasun handiagoarekin bizi du, eta ateratzean gogorragoa egingo zaio gizarteratzeaz. Nire kasuan, etxea dut, familia gainea, eta herria nirekin, babesten eta laguntzen. Baina, normalean, emakumeek bestelako egoera izaten dute zain.

Eskualdeko hamar preso dauka dispertsioak urrunduta.

Nola baloratzen dituzu gerta-tu diren mugimenduak?

Frantzian izan direnak positiboki baloratzen ditut. Mugimenduak egon badira, Ipar Euskal Herrian eman den mugimendu zabal eta indartsuari esker izan da. Uste dut badugula, Hegoaldean, zer ikasi hortik. Espainian, berriz, esan zenetik egin denera alde handia dago. Hurbilketa guztiak, txikiak izanagatik, pozik hartzen ditut. Baina ez da nahikoa. Asmatu beharko dugu Espainiako Gobernua sakabanaketa eta urrunketarekin amaitzera behartzeko modua.

Gizartea aldatu dela esan duzu. Politikan zer aldaketa nabarmentzen dituzu?

Alde egin nuenean borroka armatua egiten genuen, eta hori bukatu egin da. Aldaketa handia da hori. Baina, arazo berdinekin jarraitzen dugu, beraz, borroka egiteko arrazoi berdinak edo

«Jende asko gerturatu zait, eta eman dugunari errekonozimendu modukoa da; harro sentitzen naiz herriaz»

gehiago ditugu. Bestetik, feminismoaren indarra nabari dut, pentsiodunena, euskalgintzarena, Gure Esku Dago... Gutako bakoitzak duen indarrak, burujabetzaren ideiaz kontzienteago dira herritarrak, eta horrek indar handia ematen dit. Euskal errepublikaren bidean, ea indar hori bideratzen dugun.

Kataluniako prozesua, esaterako, espetxetik jarraitu duzu.

Ilusio eta inbidia puntu batekin bizitu dut. Indar handia eman dit horrek ere. Ikusi da arazoa ez dela borroka armatua. Herri batek bere etorkizuna erabaki nahi badu Espainiatik eta Europatik ez dute onartuko, guk ez badugu indarrez aurre egiten.

Eman dizuten babesa nola baloratzen duzu?

Ez dakit hitzekin azal dezake-dan. Lehenbizi etxekoena: ama, aita, anaia, umeak, amona, koinata, izeba-osabak, lehengusuak, lagunak... Etxekoak babesten egon den ezker abertzalea eta kolektiboa ere bai. Hori guztia gabe, ziurrenik, ez nintzen hemen egongo. Uste dut ezetz. Jende asko gerturatu zait. Poza sentitzen duzu, desadostasunak desadostasun, eman dugunari babesa erakusten diolako jendeak, errekonozimendu modukoa da. Indarra ematen dizu, eta harro sentitzen zara gure herriaz.

Kaxilda eta Ezpala gaztetxeen ateak zabaltu dituzte

Zizurkilen eraikin bat okupatu du Aiztondoko Gazte Asanbladak, eta Kaxilda jarri diote izena; Tolosan, berriz, berriro okupatu dute Ezpala gaztetxea



Kaxilda gaztetxearen espazioa antolatzen ari dira, asanbladako kideak. I. SAIZAR

Irati Saizar Artola

Gune autogestionatu bat izateko beharrak okupaziora eraman ditu, Zizurkilgo eta Tolosako gazteak. Kaxilda gaztetxea ireki du Aiztondoko Gazte Asanbladak, Zizurkilen, 17 urtez hutsik egon den espazio batean. Antolatzaileek azaldu dutenez, «lan-

gile autonomia sustatu, klase bosterea eraiki eta autodefentsa artikulatu ahal izateko gune estrategiko bat bihurtzeko elkarlanari ekin diogu gogotsu». Elkarlanean ari dira, espazioa txukundu eta beharren arabera egokitzen.

Apirilaren 19an, ostiralean, okupatu zuten eraikina, eta larunbatean Ertzaintza gaztetxera

bertaratu eta bi lagun identifikatu zituzten.

Okupazioaren harira, egitarau oparoa osatu dute, eta ostiralera bitarte jarduerak egingo dituzte, nola gaztetxean, hala plazan.

EZPALA BERRIRO MARTXAN

Astelehenean okupatu zuten, bigarren, Ezpala gaztetxea Tolo-

san. Tolosako Gazte Asanbladako kideen esanetan, «kolektiboki ditugun beharrak aztertu, eta hauek bermatzeko bideari forma emateko tresna izango da gaztetxea, langileon antolatzeko gunea, desjabetuon elkargunea».

Okupatu zuten egun berean, ertzainak agertu ziren identifikazio eske, eta bertako kideek

«eraso bat gehiago» izan zela salatu dute. Bestetik, jabearekin harremanetan jarri eta negoziatzio mahai bat irekitzeko prest daudela azaldu dute.

Egun hauetarako osatu duten egitarauan, gaztetxearen oinarri politikoa eta antolaketa eredua erabakitzeke eztabaida prozesua jarri dute martxan.

EGITARAUAK

EZPALA GAZTETXEA

Apirilak 24, asteazkena

10:00. Gosaria.
11:30. Auzolana.
14:30. Bazkaria.
16:00. Hausnarketa prozesuaren aurkezpena: Gaztetxea zertarako?
21:00. Afaria eta bertsoak.

Apirilak 25, osteguna

10:00. Gosaria.
11:30. Hausnarketa prozesua: Gaztetxearen oinarri politikoak.
14:30. Bazkaria.
16:00. Hausnarketa hitz eginda-koaren sozializazioa.
21:00. Afaria.
22:00. Jamm session.

Apirilak 26, ostirala

10:00. Gosaria.
11:30. Hausnarketa prozesua: Gaz-

tetxearen funtzioak.

14:30. Bazkaria.
16:00. Hausnarketa hitz eginda-koaren sozializazioa.
17:00. M1 langileontzat. Argazkia.
21:00. Afaria.
22:00. Filma.

Apirilak 27, larunbata

10:00. Gosaria.
11:30. Hausnarketa prozesua: Gaztetxearen antolaketa.
14:30. Bazkaria.
17:00. Hitzaldia: Hernaniko babes sarea.
19:00. Kontzertua: Bake Faltsua.
21:00. Herri afaria.
22:00. Ekitaldia.

KAXILDA GAZTETXEA

Apirilak 24, asteazkena

10:00. Ipuin kontaketa.

12:00. Kontzertu akustikoa Ereineko kide batzuen eskutik, plazan.
14:00. Bazkaria.
17:00. Musika eta soundsystemak kapitalismoan tailerra, plazan.
19:30. Kartelgintza tailerra.
21:00. Afaria.
22:00. Izarren argia filma.

Apirilak 25, osteguna

11:00. Umeentzat jolasak, plazan.
14:00. Bazkaria.
16:30. Antzerkia: Hiru txerritxoen ipuina eraldatuta, plazan.

Apirilak 26, ostirala

11:30. Lehen sorospinak. Lan Istri-puetan zer? tailerra, plazan.
17:00. M1-eko argazkia Tolosan.
18:00. Kalejira Joxe Arregi plazatik.
18:30. Herri batzarra plazan.
20:00. Hilabete bukaerako kontzertu, Zizurkil beheran.



Auzolanean ari dira txukuntzen, Ezpala Gaztetxean. I. SAIZAR



KARAKOLAK MAISU

Karakolen lasterketa eta dastaketa egin dute, asteburuan, Tolosako Trianguloo plazan. 30 lagunek hartu zuten parte lasterketan eta, azkarrena, Berastegiko Bierik Zabaletaren *Potxinkardo* barraskiloez izan zen; bigarren postua Iker Carrasco tolosarraren *Messi* barraskiloak eskuratu zuen. Karakol dastaketarako, Peio Doyharzabal eta Txemari Esteban sukaldariak aritu ziren, mokaduak prestatzen. GORKA OTAEGI

EL CONSORCIO

26
APIRILAK

TOLOSA
LEIDOR ANTZOKIA

SARRERAK:
www.leidorantokia.eus
LEHIATILAN LEIDOR



Ezkerretik eskuinera, Lurdes Etxeberria, Eider Olazar eta Brixi Arrue Garako langileak. IÑIGO TERRADILLOS

‘Egin’ek utzitako zorra dela eta, 3 milioi euro ordaindu behar dizkio, ‘Gara’k, Gizarte Segurantzari. Horretarako, harpidedunak lortzeko kanpaina egiten ari dira.

Isildu ez daitezen

I. Terradillos – I. Urdalleta

Egingen hutsunea betetzeko helburuarekin, duela hogeitau urte, *Gara* egunkaria sortu zen. *Eginek* 4,7 milioi euroko zorra zeukan, ordea, 1998an Auzitegi Nazionalak itxi zuenean, eta, *Gara* jaio orduko, hari egotzizion Baltasar Garzon epaileak zor hori.

Orain, egunkariak akordio bat erdietsi du Gizarte Segurantzarekin eta, horren arabera, guztira 3 milioi eurotik gora ordaindu beharko dituzte, sei hilean behin 500.000 euroko ordainketa eginenez. Jada lehenengo ordainketa egin zuten, akordioa lortutako momentuan. Guztira, langileen urteko soldata baino gehiago ordaindu beharko dute. «Espoliazioa, lapurreta eta prentsa askatasunaren aurkako eraso» dela

azaldu dute. Arazo horrek proiektu oso bati eragiten dio: *Gara* egunkariari, *Naiz* agerkari digital eta irratiari... Gainera, 200 langile baino gehiagoren lanpostua ere jokoan dago.

Lurdes Etxeberria, Eider Olazar eta Brixi Arrue dira langile horietako hiru. Beraiek diotenez, *Gararen* proiektuak, zailtasunak zailtasun, garapen bat eduki du ordutik, eta horretan jarraitu nahi dute, uste dutelako herri honek «ezinbestekoa» duela komunikabide indartsuak izatea eta, beraiei dagokienez, kazetaritza independente eta profesionalen oinarritzen den hedabide indartsu bat izatea. Beraz, uste dute Euskal Herriak behar duela beraiena bezalako proiektu bat. «Zor hori erabat injustua da, eta lapurreta bat, baina ordaindu egin behar dugu. Horrela, proiektua garatzen jarraituko dugu eta hori da gure erronka».

HARPIDETZA KANPAINA ABIAN

Horretarako, harpidetza kanpaina bat abiatu dute. Momentuz 2.000 harpidedunetik gora lortu dituzte eta, beraien helburua, ekainerako 10.000ra iristea izango da. Horrez gain, hitzaldiak, ekitaldiak eta mahai inguruak antolatzen ere ari dira, herritarrei informazioa helarazteko. Esaterako, Tolosan, apirilaren 3an mahai inguru bat antolatu zuten, Mariano Ferrer *Egineko* lehen zuzendariarekin eta Garbiñe Biurrun epailearekin. Gainera, Ferrerren azken agerraldi publikoa ere izan zen. Hurrengo hitzordua, berriz, ekainaren 9an izango da, Donostiako Belodromoan. Bertan, Euskal Herriko hainbat musikarik saioa eskainiko dute, eguerditik iluntzera.

Aspalditik datorren arazoa da, 1998an Auzitegi Nazionalak *Egin* itxi zuenetik, hain zuzen ere. Handik hamaika urtera, Au-

zitegi Gorenak onartu zuen itxiera hori erabat legez kanpokoia izan zela.

«Historiak erakusten duen bezala, beste behin ere, irtenbidea herritarrek eman beharko diote, *Gara* sortu zenean bezala». Herri finantzaketa kanpaina bat egin zuten orduan ere, eta, nahiz eta, 1998ko uztailaren itxi, 1999ko urtarrilean kioskoetan zeuden berritoki. Orduan akzionistak izan ziren, eta orain harpidedunak izatea proposatzen dute. Lortu nahi dituzten harpidedun horiek zorrari buelta emateko eta proiektuak egunerokotasuneko martxa eramane dezan izango dira.

Kanpaina horrekin laguntzeko, boluntario taldeak sortzen ari dira herrietan, eta nazioartetik ere eskaini diete laguntza. Gaineratu dute, harpidedun egiteko modu bat baino gehiago daudela, eta herritar bakoitzaren

nahi eta erabilerara egokitzen direla.

Zorra gainetik kentzea dute orain helburu, baina, azpimarritu dute, ezin dela ahaztu *Gara* hamabost urtean egon dela ordainketa etenduran, eta ez dela egoera erraza izan. «Egoera latza izan da. Izan ere, mugatu egin gaitu edozein pausu ematerako garaian», diote langileek. Administrazioaile judizial bat eduki dute gainean, eta edozein mugimendu egiteko bere baimena behar izaten zuten. «Horrek suposatzen digu, inongo diru laguntzarik eskatzeko aukerarik ez edukitzea. Azken finean, dena kontrolpean geneukan, eta eguneroko jardura geldiarazten zigun», azaldu dute.

«Historiak erakusten duen bezala, beste behin ere, irtenbidea herritarrek eman beharko diote»

«Beste aukera komunikabidea ixtea zen, eta bertan behera geratzea proiektu komunikatibo osoa»

Adierazi dute, egoera «larri» horretan aurrera jarraitu ahal izateko, Gizarte Segurantzarekin akordio batera iristea beste aukerarik ez zegoela. «Beste aukera komunikabidea ixtea zen, eta bertan behera geratzea proiektu komunikatibo osoa», diote langileek. Proiektuak aurrera jarraitzeko ardura, taldeak berak eta herritarrek dutela diote: «Ezin da onartu XXI. mendean horrelako zerbait gertatzea, ez bertako langile bezala bakarrik, ezta herritar bezala ere». Gaineratu dute, 2019an arrazoi horiengatik komunikabide bat itxi behar izatea iraganera bueltatzea dela.

EKONOMIKOTIK HARAGO

Langileek argi dute hau ez dela arazo ekonomiko bat, «politikoa» baizik, «erabaki politiko baten ondorioa» delako: «Azken finean, estutzea eta estutzea da eta aterabiderik ez daukan egoera batera eramatea», azaldu dute langileek..

Etxeberriak, Olazarrek eta Arruek uste dute, *Gara* eta *Naiz* bezalako hedabideak edukitzea beharrezkoa dela irakurle, entzule eta ikusle kritikoak edukitzeko. «Gure kulturari ere ekarpena egiten dio eta komunikabideetan aniztasuna izatea ere ezinbestekoa da. Lortuko dugu, eta horretan saiatuko gara langile eta herritar bezala».

Iñaki Artolak eta Erik Jakak gaur aukeratuko dute materiala

Buruz buruko esku pilota txapelketaren final-zortzirenetako partida Tolosako Beotibarren jokatu dute eskualdeko bi ordezkariak, ostiralean, 19:30etik aurrera

Asier Imaz

Buruz buruko txapelketaren lehen jardunaldia jokatu da aste-buru luze honetan, lehen mailako pilotarien artean. Eskualdeko ordezkari bakarra zegoen, Iñaki Artola, eta 22-11ko emaitzarekin lortu zuen garaipena, Arteaga II.aren aurka. Final-zortzirenetan dago, beraz, alegiarra. Hurrengo partidako aurkaria eskualdeko beste pilotari bat izango du Artolak: Erik Jaka lizartzarra.

Artolaren eta Jakaren artekoa Beotibarren jokatu da, ostiral honetan, 19:30ean hasiko den jaialdiaren barruan. Tolosako lehen partidari Arteaga II-Imazek Alberdi-Mariezurrenaren aurka jokatu dute. Txapelketakoa ondoren hasiko da. Irabazleak final-laurdenetarako txartela lortuko du eta, bertan, Ezkurdiaren aurka jokatu beharko du. Partida hori Iruñeko Labriten antolatu dute, maiatzaren 4an.

Ostiraleko partidari begira, Artola eta Jaka Tolosako Beotibarren izango dira, gaur, pilota aukeraketan. 13:30ean hasiko da material bereizketa.

Buruz burukoan eskualdeko lau pilotari zeuden. Jon Ander Peña tolosarrak aurre kanporaketa jokatu zuen, Agirreren aurka. Lesioa izan zuen, ordea, Peña II.ak, eta partida ezin izan zuen amaitu. Laugarren pilotaria txapelduna da: Jokin Altuna. Amezketarra final-laurdenetan sartuko da txapelketan. Victor edo Irribarria izango da Altuna III.aren aurkaria, maiatzaren 3an, Donostian.

BIGARREN MAILAKOAN, BI

Bigarren mailako buruz buruko txapelketan eskualdeko bi ordezkari hartuko dute parte. Bat iazko finalista izango da, Jon Erasun. Arantza ateratzen saiatuko da zizurkildarra. Darioaren aurka jokatu du, maiatzaren 5ean. Bigarren ordezkaria Beñat Urretabizkaia izango da. Ikaztegierraren aurkaria Elordi izango da, Urduñan, maiatzaren 3an jokatu duten partidari.



Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren aurkezpen ekitaldian, parte hartzaileen ordezkariak eta pilota federazioko kideak. ATARIA

Tolosaldeko zazpi herri hartuko dute parte Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan; maiatzaren 5ean jokatu dituzte lehen partidak, esku pilota modalitatean

Herriartekoan eskuz eta paletaz

A. Imaz

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa aurkeztu dute. Tolosaldeko zazpi herri parte hartuko dute aurtengo txapelketan, zortzi talderekin. Izan ere, Tolosak bi talde osatu ditu: bata eskuz eta beste gomazko paletaz. Beste herriak honakoak dira: Aduna, Altzo, Amasa-Villabona, Asteasu eta Bidania-Goiatz eskuzko txapelketan ariko dira, eta Anoeta gomazko paletaz. Palan eta zesta puntan ez da eskualdeko ordezkari izango.

Jokoan sartuko diren lehenak esku pilotariak izango dira. Eurentzat txapelketa maiatzaren 5ean hasiko da, final-hamaseirenetako partidekin. Itzulera partidak, aldiz, hilaren 12an izango dira. Lehen kanporaketa horretan ez dira herri guztiak egongo. Iazko txapelketa kontuan hartuta, herri gehienak final-zortzirenetan sartuko dira txapelketan, hau da, maiatzaren 19an. Altzo, Asteasu, Tolosa eta Bidania-Goiatzen kasua izango da hori. Azken biek elkarren aurka jokatu dute final-zortzirenetakoa. Altxok Oñatiren aurka neurtuko ditu indarrak, eta Aste-

asuren aurkaria lehen asteburuan erabakiko da, Zestoa eta Aretxabaletaren arteko kanporaketan.

Amasa-Villabonak eta Adunak, final-zortzirenetan egoteko, maiatzaren 5ean eta 12an jokatu beharko dute. Billabonatarren aurkaria Andoain izango da, eta adunarrena Bergara. Irabaziz gero, Azkoitia eta Hernani izango dituzte zain, hurrenez hurren. Bi herri horiek lehen jardunaldia etxean jokatu dute.

Guztira, beraz, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan, eskuzko modalitatean, 19 herri hartuko dute parte.

ANOETA ETA TOLOSA

Gomazko paletan 16 herri eman dute izena. Eskualdekoak Anoeta eta Tolosa izango dira. Txapelketa maiatzaren 12an hasiko da, eta herri guztiek parte hartuko dute final-zortzirenetako kanporaketan. Zozketaren ondoren, Anoetari Azpeitiaren aurka jokatzea tokatu zaio, lehen kanporaketa hori. Lehen partida Anoetan jokatu dute eta, itzulera, maiatzaren 19an, Azpeitian.

Tolosarrek bigarren jardunaldia jokatu dute etxean. Aurrenekoa, aldiz, Elgoibarren; bertako taldearen aurka ariko baitira, final-zortzirenetan.

Erredakzioa Tolosa

Igarondo Urpekoak taldeak emaitza ikusgarriak lortu ditu hegats igeriketako Munduko Kopan. Aix en Provençen (Frantzia) jokatu dute munduko koparen hirugarren jardunaldia, eta eskualdeko igerilariak bertan izan dira, Euskadiko selekzioa ordezkatzuz. Guztira, Igarondoko 8 igerilari aritu dira lehian, eta mundu osoko aurkariak izan dituzte: 100 taldetako 450 igerilari.

Beste behin ere, aipatzekoa da Irati Lakunzak lortutakoa. 200 eta 400 metro ur gaineko probetan parte hartu zuen tolosarrak. Bietan podiuma gertu izan zuen, laugarren amaitzea lortu baitzuen. Postuez gain, ordea, Espainiako errekorrak hautsi zituela nabarmendu behar da. 200eko distantzian 1.33,73ko marka jarri zuen Lakunzak. 400ekoan bere errekorra 3.24,46an geratu da, lehenetik zegoena bi segundotan hobetuz. Inongo zalantzarik gabe, urte izugarria egiten ari da Irati Lakunza.



Eskualdeko igerilariak Frantzian izan dira, Munduko Koparen hirugarren jardunaldian. ATARIA

Igarondokoak bikain munduko kopan

Irati Lakunzak, bi probatan podiumetik gertu amaitzeaz gain, Espainiako bi marka hautsi ditu; juniorretan bost ordezkari izan dira

Aras Karakus ere maila handian ibili zen. Igarondo Urpekoak taldeko kideak seigarren postua lortu zuen, ur gaineko 50 metrotan. Horrez gain, zortzigarren geratu zen, 50 apneako proban.

Olatz Eizmendik osatu zuen senior mailako taldea, 50 eta 100 metrotako probetan parte hartuz eta, inondik ere, bere maila emanaz.

GAINONTZEKO KIDEAK

Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko beste igerilariak junior mailan aritu ziren lehian. Mad-di Goenaga, Markel Arrizibita, Aritz Auzmendi, Garazi Goenaga eta Nora Sarasola izan ziren eskualdeko ordezkariak Frantzian. 50, 100 eta 200 ur gaineko probetan parte hartu zuten.

Igarondokoek azaldu dute «oso esperientzia polita» izan da, beraientzat, mundu osoko igerilarekin lehiatzea: «Bestalde, igerilariez gain, ez dugu ahaztu behar tekniko lanetan elkarteko Jon Espina eta Maitane Tolosa izan direla bertan».

Loatzoko Igoera-Jaitsiera, igandean

XXVII. mendi lasterketa jokatu dute, Amasan, 10:30etik aurrera

Erredakzioa Amasa-Villabona

Loatzoko XXVII. Igoera-Jaitsierako antolatzaileek eskerrak emanez aurkeztu dute, igandean jokatu den 9,73 kilometroko mendi lasterketa: «Esker bereziak eman nahi genizkieke lasterketa hau antolatu ahal izateko

laguntza ematen diguten laguntzaile guztiei, beraiek gabe ez bailitzateke posible antolakuntza. Mila esker, beraz: TOLOSALDEKO ATARIA, Talleres Egoki, Benito Harategia, Eizmendi anaiak armategia, Indarbi elektrizitatea, Amasa okindegia, RK Taberna, Etxepe iturgintza, Zizurkil elektrizitatea, Graficas Oria, Gaztainaditxulo Gaztandegia, Errezil pentsu biltegia eta Amasa-Villabonako Udalari».

Amasako gazteek eta Uxo-Toki elkarteak antolatu dute api-



Iazko emakumeen lasterketa Aitziber Ibarbia zizurkildarrak irabazi zuen. ATARIA

rilaren 28ko lasterketa. Irteera 10:30ean egingo dute, Uxo-Toki elkartetik. Izen-ematea, berriz, egunean bertan izango da, 09:00etatik aurrera, Uxo-Toki elkartearen, doan. Sariak lehen hiru sailkatuentzat izango dira, nahiz eta parte hartzaileen artean «zozketa mundiala» egingo duten. 120 euro jasoko dituzte irabazleek; bigarrenek 80 eta hirugarrenek 50. Loatzoko igoera eta jaitsiera arriskurik gabea baldin bada ere, 16 urtetik gorakoek soilik parte hartu ahaliko dute.

atarian jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2019KO APIRILAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak



OPORRAK AHOZKOTASUNEAN

Ibarrako Udalak hitzorduz bete du Pazko Asteko oporraldia, herriko gaztetxoentzat. **Horrela, atzo hasi eta ostiralera bitarte, ahozkotasuna izango da nagusi liburutegian. Atzo *Magiaren kutxasaioa* izan zen, eta honakoak izango dira, datozen saioak, 17:00etan hasita: *Lara Larika*, 5 urte bitartekoentzat; *Kolorez kolore*, 2 eta 6 urte bitartekoentzat; eta *Nahia eta Neo*, 3 urtetik gorakoentzat.** IRATISAIZAR ARTOLA

APIRILAK 24

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Tolosaldea Garatzenen tarte eta Oskar Tenaren arte txokoa.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. Hari naizela.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik
16:30. Ur eta lur
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Denbora da poligrafo bakarra
22:30. Galdegazte
23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa.
Eduene Mujika Martinez.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15

Gauekoa.

Lourdes Azpiroz Galartza.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro nahasia. Goizean nahiko giro lasaia, ostarte batzuekin, eta hego-mendebaldeko haize zakarra. Tenperatura nahiko atsegina: erdiko ordutik 14-16 gradu. Arratsaldean giroa ezegonkortu egingo da, eta euri zaparradak izango ditugu. Ugarietak eta handienak arratsalde erdian eta gau partean; ekaitzak jo dezake, kazkabarra utziz.

Bihar. Goiz lasaia, arratsaldean zaparradak. Mardul samarrak; tarteka ekaitza eta kazkabarra. Tenperatura maximoa igo egingo da: 16-18 gradu.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

ZORION AGURRAK



Zorionak!

17 urte. Tolosako Eñautek, igandean, 17 urte egin zituen. Zorionak eta muxu asko, etxeko guztien partetik.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu
DELTECO GBC-MONBUS OBRADOIRO
partida ikusteko
Apirilaren 27an,
20:30etan, Ilunben.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu
‘El Consorcio... Eres tu’
kontzerturako sarrera bikoitza
Apirilaren 26an,
20:30etan, Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**